

ANOETAKO MINIESTADIOA BIRMOLDATZEKO PROIEKTUAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Anoetako estadio txikia birmoldatzeko proiektuan inguruan, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko irailaren 17ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Anoeta Miniestadioa birmoldatzeko obren exekuzio proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua Sestra S.L enpresari esleitu zitzaion. Akordio hau Anoeta Kiroldegiaren kontseiluan 2016ko martxoaren 16an gauzatu zen. Esleipenean, egikaritzeko lau hilabeteko epea zuen enpresak. Exekuzio proiektua ez da oraindik aurkeztu, ordea, kontseiluan.

2017ko otsailean interpelazioa aurkeztu genuen gai honen inguruan. Urte bereko apirilean, aho batez, Udaltzarak honako mozio hau onartu zuen:

1-Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio udal taldeei lehenbailehen aurkez diezaiela estadio txikia birmoldatzeko exekuzio proiektua, eta eremu osorako plangintza-kronograma bat landu dezala

Iraileko batzordeetan, zinegotzi-ordezkariek ez zuen argibide askorik eman, eta mozioa onartu zenetik 15 hilabete pasatu direnean, nahiz eta pauso txikiren bat eman, berdin jarraitzen dugu.

MOZIOA

1-Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio udal taldeei, bi hilabeteko epean, aurkez diezaiela Anoetako estadio txikia birmoldatzeko proiektua, eta eremu osorako plangintza-kronograma bat landu dezala.

Donostian, 2018ko azaroaren 16an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia